

Joxerra Aizpurua
INDUSTRIA INGENIARIA

Zientziaren globalizazioa

A

merikako Estatu Batuek (AEB) eztula egiten dutenean Europan katarroa dugu eta Afrikan auskalo zer. Herrialde aberatsotan CO₂ isurtzen dugunean Poloetako izotza urtzen ari gara. Herrialde pobreetako “talentoak” herrialde aberatsek fitxatzen dituztenean, hemen gertatzen denak hor eta han eragina du; agian munduko historian beti gertatu den fenomenoaren aurrean gaude, baina ezin uka orain inoiz baino kontzientzia handiagoa dugula “globalizazioak” gertatzen ari direla.

Zientzia aldizkari ospetsuetan argitaratu ematen diren ikerketen atzean AEBetako ikerlariak daude neurri handi batean, hobe esanda, AEBn bizi diren ikerlariak daude, asko eta asko AEBk egindako “fitxajeak” baitira. Ikerketa askoren atzean dauden sustatzaileak enpresa multinazionalak dira edo botere ekonomikoari lotutako taldeak daude. Beraz, normala da ikerketen helburuak sustatzaileen helburuekin bat etortzea.

Egia da gehienetan gizakiaren osasuna hobetzea eta erosotasuna handitzea ere lortzen direla ikerketek esker, baina beti ere sustatzaileek negozio ona lortzen badute.

Dirua eta interesak dira jaun eta jabe ikerketan, baina noizean behin, zorionez —nahi baino gutxiagotan— ikerlarien kontzientziak gizatasun-haizea ekartzen dio ikerketari arazo etiko-filosofikoak sortuz. Haize fresko horrek ikerketen helburu ekonomiko



ALBERTO ELSOEGI

hutsak pixka bat gizatartzeko balio izaten du, uste dugun baino gehiagotan.

Ikerketa-zentro garrantzitsuenak AEBn eta Europan daude eta gero eta zailagoa da Arizonan, Berlinen, Londresen edo Bilbon daudenak bereiztea. Guztiek oso “marka” komunak dituzte, hau da, ingelesez egin behar da, doktoreak behar dira, aldizkari ospetsuetan argitaratu behar da eta proiektu transnazionalen parte hartu behar da. Interes lokalak, probintzialak edo nazionalak, askotan, bigarren mailara pasatzen dira eta interes globalak gailentzen dira.

Herrialde aberatsetako agintariak talentuen ihesa ekidin nahian ari dira eta horretarako hainbat ekintza burutzen dira. Eusko Jaurlaritzak, adibidez, onartu berri duen zientzia planean, ikerlari bikainak kanpotik ekartzeko edota daudenak gertzeko neurriak planteatu ditu.

Hau irakurtzean, bateren batek zein mundu eraikitzen ari garen galde dezake eta ikerketa herrien interesetan baino botere ekonomikoaren interesetan jartzeak zer ekarriko digun. Erantzunik ez dut ikerlarien kontzientziatik at.

Dena den, hemen telebista eta aldizkarietan hitz egiten den zientziaz hitz egin badugu ere, gogoratu beharra dago gure enpresetan isileko ikerketa eta berrikuntza ugari egiten direla eta horiek bai daudela gure herrien interesetik hurbilago. ■



Gizakiaren osasuna

hobetzea eta erosotasuna

handitzea ere lortzen dira

ikerketek esker, baina beti

ere sustatzaileek negozio

ona lortzen badute



HIRUKO TXIKIAN
Joxemari Ostolaza



Aurtengo abuztua. Piperak, tomateak eta gainetako barazkiak herdoil, turistak legez, joan zaigu

eritasun aipatuena bide zuen Xabino laguna. Ez ditu gozoak izan bere azken hogeita hamar urteak zornotzarrak. Errepresioa haragitan bizi izanari ez diot kexarik ezagutu, motiborik falta ez bazuen ere. Bere azken urteak elbarri, aurre egin zion bere muturreko egoerari puntako kirolariaren diziplinaz, borrokan zaildutako gizon eredu-garriaren senaz. Ziburuko plazak bere hutsunea ekarriko digu igande eguerditan bereziki. Bere Zornotzan egin zioten agurrezko omenaldi debekatuak argi utzi du berriz ere

Badoakigu

zurien plantak jasaten. Lluís Xirinacsek ere abuztuan utzi gaitu, inguratuta gauzkatzen zintzo zuriak ezin gehiago soportatuz, bizi honi zentzurik ezin aurkituz, mundu hau klaustrofobikotzat joz, bere azken predikuak adierazten duen bezala. Hala ere, bakean utzi zuten bere agurrean hemen ez bezala, Katalunia ez dela Euskal Herria garbi utziz. Orain hogeita bost bat urte PSANek antolatu Valentziako Diadan ezagutu nuen, kementsu. Irudi harekin gertatzen naiz. Horrela gogoratuko dut Xabinorekin batera. ■